

## U HOLDE PREBENTZIOKO TEKNIKARI LANPOSTUA URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ZERBITZUKO LAN-KONTRATU FINKOKO LANGILE GISA BETETZEKO PROZEDURAREN KALIFIKAZIO-EPAIMAHAIAREN AKORDIOA

Goian Aipatutako Epaimahai kalifikatzailearen idazkariak, Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18. Artikuluan ezarritakoaren babesean, honakoa

### ZIURTATZEN DU

Aipatutako Epaimahaiak, 2021eko irailaren 17an izandako bileran, honako Erabakiak argitaratzea ebatzi duela:

**Lehenengoa.-** COVID-19ak izandako eragina kontuan hartuta , eta osasun publikoa babesteko asmoz, Plangintza eta Lanen Zuzendaritzako Uholde Prebentzioko teknikari lanpostua betetzeko prozesua osatzen duten probak egiteko egutegian, COVID-19 birusaren eragina jasan duten pertsonen (kasu positiboak edo konfinatutako pertsonak) prozesuaren faseetako probak egiteko datak atzeratu ahal izango zaizkie.

Bai positibo emateagatik bai konfinamendu egoeran egoteagatik, eragindako pertsonen probak atzeratzeko eskaera Epaimahaiari helarazi beharko diote zitazuta zeuden eguna baino lehen. Eskaera honako posta elektronikoaren bidez egingo da:

[Administrativo@uragentzia.eus](mailto:Administrativo@uragentzia.eus)

Joan ez diren probaren egunetik eta bost egun balioduneko epean, pertsona horiek medikuaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, adieraziz zitazioa jaso zuten hasierako egunean ezin zela aurkeztu positiboa eman zuelako edo konfinamendu-egoeran zegoelako.

Aipatutako egiaztagiria aurkezten ez duten pertsonen ezingo dute hautaketa-prozeduran parte hartu.

Era berean, proben atzerapena kontuan hartzen da, 37 gradutik gorako tenperatura dutela egiaztatzeagatik horietara sartzea ukatzen zaienentzat. Kasu horretan, ez da beharrezkoa izango geroratze-eskaera igortzea; geroko zitazioa ofizioz egingo da.

Epaimahaiak egoera honek eragindako pertsonak deituko ditu beste data baterako, behar besteko aurrerapenarekin.

**Bigarrena.-** Erabaki horiek Uraren Euskal Agentziaren web-orrian eta Campo y Ochandiano kanpoko aholkularitza-entresaren web-orrian argitaratzea.

---

**Hirugarrena.-** Izapide-egintza den Akordio honen aurka ex dago administrazio-errekurtsorik jartzerik, Administrazio Publikoen Administrazio-prozedura Erkideko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. Eta hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Gasteiz, 2021eko irailaren 17a

Epaimahaiaren idazkaria

María López de Heredia San Julián

---